

Bizi txokoak

Basoak altxor handia dira, eta horri aitortza egiteko edo, Basoen Nazioarteko Urtea izango da aurtengoa. 'Basoak, pertsonentzat' izango du lelotzat ekitaldi horrek, eta pertsonarik gabe basoak agian hobeki biziko liratekeen arren, pertsonak ezinbesteko dituzte basoak, baita hainbat eta hainbat landare- eta animalia-espezie ere. Basoen osasuna zaindu eta hobetzeko, ekintza asko egin daitezke (egin ditzakegu): basoetako baliabideak modu ordenatuan kudeatu, basoak garbi eduki suteek indarrak ez hartzeko eta energia berriztagarriak sortu ahal izateko, zuhaitz-landaketak zentzuz egin, turismoa kontrolatu...



Energia-biltegiak. Basoak garbitu ondoren, materia organiko ugari lor-tzen da, tonaka, eta energia lortzeko erabil daiteke materia hori guztia. Espainian, badira baso-biomasatik argindarra lor-tzen duten plantak (landare-jatorriko materia hila erreta, hain zuzen). Basoei osasuntsu eusten laguntzen dute, eta eragotzi egiten dute, aberastasuna lortzeko helburuz, baso-garbitze masiboak egin daitezten.

GEHIAGO JAKITEKO
www.consumer.es

Jatorri Izena duten basoak. Gizakia- ren lagun handiak dira basoak. Oxigenoa ematen dute, eta ura erakartzen eta gordetzen dute. Horregatik, zuhaitzak kontrolik gabe mozteak areagotu egiten du planetaren beroketa globala. Kontua ez da egurrrik ez egitea; kontua da jakin egin behar dela zein zuhaitz bota, basoak gazte iraun dezan. Baso bat modu arduratsuan kudeatzen duten edo ez jakiteko, munduan badira zenbait ziurtagiri, eta horiek egiazta-tzen dute produktu bat (zura, papera, perretxikoak, fruituak...) era horretako baso batetik datorrela. Espainiak 18 milioi hektarea baso ditu, Europar gainazalik handiena duen hirugarrena, Suedia eta Finlandiaren ondotik. Baina ziurtagiri bidez egiaztatutakoak, ordea, % 10era ere ez dira iristen Espainian.



Etsaia: suteak. Zuhaitzak legez kanpo mozteak areagotu egiten du baso-soiltzea, baina ez horrek bakarrik. Suteek ere kalte ezin itzulizkoak eragiten dituzte: zorua kutsatzen dute, baita ura eta arnasten dugun airea ere, eta galera ekonomiko handiak ekartzen dituzte. Ezinezkoa da suteak guztiz desagerraraztea, baina gutxitu litezke. Horiei aurrea hartzeko, funtsezkoa da suebakiak egin eta zaintzea, espezie errekorak ez modu masiboan landatzea eta sastrakak garbitzea.

